

Txikitin parian

Eñaut Uruburu Martinez



Baina astea ez da ikasleontzat soilik petrala: irakasleak ere ernegatzen dira! Abes ditzagun, gure purrustadei erantzunez, irakasleek jarritako koplak.

Doinua: Soldadu sartu nintzan **Kopla txikia**

- 1 Ikasgelara sartu ta hasten dut **lana** kopla bidez azaldu *txikitin parian baina ai* nahi **dizuedana**.
- 2 Txirrinak jo ta dator ikasle **tropela** motxilak arrastaka... *txikitin parian baina ai* hau ordu **motela!**
- 3 Jesarri direnean hurbildu zait **Miren:** "larri nago ta utzi *txikitin parian baina ai* komunera **joaten**".
- 4 Judith heldu da hogei minutu **berandu**. Mikelek ezkutuan *txikitin parian baina ai* gaileta bat **jan du**.
- 5 Azaltzen nabilela gaiko **teoria** Hassanek ebaki du *txikitin parian baina ai* atzamar **lodia**.
- 6 Arkatza zorroztera altxatu da **lbon**, ea Martak horrela *txikitin parian baina ai* begiratzen **dion**.
- 7 Teoria praktikan lantzen hasi **gara** ta aulkitik atzerantz *txikitin parian baina ai* jausi da **Enara**.
- 8 Galdetu dudanean dena ulertzen **den** Olaiak ez du jakin *txikitin parian baina ai* ze orritan **gauden**.
- 9 Arbelean idazten hasi **naizenean** hegazkin batek jo nau *txikitin parian baina ai* ipurdi **gainean**.
- 10 Buelta eman dut eta Jon Ander **urduri**, eskuak mahaipean, *txikitin parian baina ai* koaderno **zuri**.
- 11 Hauxe da panorama goiz ta **arratsaldez** gaur ere irtengo dut *txikitin parian baina ai* hemendik **tatarrez**.
- 12 Bihar itzuliko naiz ikasle **artera** jolasten ikasteko *txikitin parian baina ai* haiekin **batera**.